

Donostia, 2021eko abuztuaren 3a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko arau proposamen hau aurkezten du, Udalbatzak azter dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, adostasun handi samarra dago Donostiaren arazorik handienetako bat etxebizitzaren prezioa dela eta horren ondorioz, pertsona askok dituztela etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak.

Ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen Foru Arauak aukera ematen die udalei, egoki irudituz gero, etxebizitza hutsei gehenez ere % 150eko errekarua aplikatzeko, zergaren kuotaren gainea Donostian, % 100eko errekarua ezarri da OHZren gainean. Hala ere, ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, zenbait egoeratan, ez daude lotuta errekaru horri (23. artikulua). Horien artean, salbuespen hau dago:

“k) Pertsona fisikoenak diren etxebizitzak, pertsona horiek bizitoki ohikoa ez den etxebizitza baten edo bat baino gehiagoren titularrak badira eta etxebizitza horien guztien katastro balioa, batera, 225.000 € baino txikiagoa bada”.

Askotan, balio ekonomiko eta katastro balio gutxien duten etxebizitzak izaten dira, hain zuzen ere, alkilatzen errazenak. Batez ere, Donostian, estatu guztian alokairu preziorik handienak ditu eta. Horregatik, iruditzen zaigu muga hori oztopo dela etxebizitza huts horiek alokairuko merkatuan sartzeko. Horregatik, zenbateko hori 75.000 eurora gutxitzea proposatzen dugu.

Horiek horrela, honako ERABAKI HAUEK proposatzen dizkiogu Donostiako Udalbatzari:

LEHENENGOA:

Azalpen zatiarekin bat, 23. artikuluan (Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, xedea dela kausa errenergua aplikatzeari lotuta ez daudenak) K apartatua aldatzea. Hau jartzen duen tokian:

“k) Pertsona fisikoenak diren etxebizitzak, pertsona horiek bizitoki ohikoa ez den etxebizitza baten edo bat baino gehiagoren titularrak badira eta etxebizitza horien guztien katastro balioa, batera, **225.000 € baino txikiagoa** bada”.

Beste hau jarri behar du:

“k) Pertsona fisikoenak diren etxebizitzak, pertsona horiek bizitoki ohikoa ez den etxebizitza baten edo bat baino gehiagoren titularrak badira eta etxebizitza horien guztien katastro balioa, batera, **75.000 € baino txikiagoa** bada”.

BIGARRENA:

1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea 2020ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau. Hartara, behin behineko erabaki hori behin betiko bihurtuko da, baldin erreklamaziorik aurkezten ez badute.

Sin.: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea